

EUSKAL-ESNALEA

10'g. urtea

1920 - OTSAILA

194'g. zenbakia

GURE ABERATSAK

Euskotaf aundikiyen jauregiyetan egun beltz baten jeiki zan arotzaletasun-aizeak eusko-uriyetako txaidietatik, aufian artu-ta, basefi txiro ta basetxe bakafetara basteftu zuan gure euskera maitagafia, badirudi euskeltzaletasun-eguzki-befiyak mendi-artetik jeikita, malkafak artuaz, basetxiak berotuaz, basefiak alaituaz, uriyan bete-betian saftu nairik, euskotaf biotz osoen jabe egin nai duala.

Bañan gutxika..., neke aundiz saftzen ari da uriyan eguzki osasungafi au. Lenago arotzale-aizea jeiki zan jauregiyetatik, orain andikeri-lañua jeiki eta uriya estaldu du. Alaz guziyaz Jaungoikua'gan itxaron degu eguzki befi oni emango diyola beaf duan indafa laño kaltegafi au ayenatzeko.

Ba, ¿zeaf da andikeri-laño bat besterik euskotaf aberatsen jauregiyetatik jeikitzen dana?

Gure aundikiyak, gure aberatsak, ez dute aintzat artu nai beren abizenak egin ditun izkuntza. Txiroa derizkiote, guztiz txiroa, iya lotsagafia; basefitafena, afantzaliena; ayen sukaldiak bezin illuna, abenak bezin txiroa arkitzen dute. Ez dute nai berentzat; geyago: ez dute berentzat ezagutzen. ¡Eroak!

Onelakoak aberatsak izango dira, bai; bañan zakela bakafik aberats, ez burua. Adimen txiroa da, euskera euskotaf oroena dala aitu ezin duana.

MUXIKA'TAR ERÖBUSTENE.

Deba.